





KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

Familien konfiantza inoizko apalena da

EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2020KO IV HIRUHILEKOA

-33



2020ko laugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza indizeak azken sei urteetako baliorik txikiena jaso zuen, eta 2008ko krisiaren ezkortasun mailetan kokatu zen.

Covid-19ak sortutako krisiak kontsumitzaileen konfiantza hondatzea eragiten du, eta ekonomia-aren susperraldiari buruz eszeptiko agertzen dira. Lehen hiruhilekoaren (-1) eta laugarrenaren (-33) arteko konfiantzaren beherakada esta-


tistika horrek inoiz erregistratu duen jaitsiera handiena da. Ezkortasuna areagotu egin da pandemiaren bigarren olatuarekin, ezarritako euste neurriekin eta hirugarren infekzio olatu baten iragarpenarekin.

Nazioarteko testuinguruan, igurikimen negatibok orokorrak dira, baina EAEn, Estatuan eta Erresuma Batuan kuantifikatu da gehien mesfidantza hori.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


| | 2019 | 2020 | 2019 | | 2020 | | | |
|-------------------------|------|------|------|-----|------|-----|-----|-----|
| | | | III | IV | I | II | III | IV |
| Euskadi | -2 | -22 | -5 | -9 | -1 | -24 | -30 | -33 |
| Europar Batasuna | -6 | -15 | -7 | -7 | -7 | -21 | -16 | -18 |
| Frantzia | -9 | -13 | -8 | -6 | -8 | -18 | -12 | -16 |
| Alemania | -2 | -10 | -3 | -3 | -3 | -16 | -9 | -11 |
| Erresuma Batua | -10 | -17 | -9 | -10 | -6 | -23 | -17 | -22 |
| Spainia | -6 | -23 | -6 | -10 | -10 | -29 | -27 | -28 |

EKONOMIA OROKORRA




Iritzien inkesta horren arabera, indize orokorra osatzen duten osagai guztiek okerrera egin zuten 2020ko laugarren hiruhilekoan. Eskuragarri dauden koitunturazko datuek krisi ekonomikoa moteltzen ari dela erakusten badute ere, ekonomia orokorraren eta enpleguaren gaineko egoeraren balorazioak nabarmen egin du behera urteko azken hilabeteetan. Orobat, etxeko egoeraren balorazioak ere okerrera egin du, nahiz eta iritzia gutxiago ezkortu den.

FAMILIAREN EKONOMIA



Aurrezteko gaitasuna balio negatiboetara itzuli da berriro. Konfiantzaren eragina etxeko gastuan eta inbertsioan begi bistakoa da: 2020an EAEko etxeko kontsumo eta inbertsio erabakiak geldiarazi dira. Atonia bat dago etxebizitza edo autoa erosteko asmoan, eta hori areagotu egin da 2020ko laugarren hiruhilekoan. Zuhurtzia izan da ezaugarri nagusia eta aurrezpena historikoki maila altuetan gotea ekarri du.

LANGABEZIAREN BILAKAERA



Iturria: Laboral kutxa.

AURREZTEKO GAITASUNA

